

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

654

32/2021 EBAZPENA, urtarrilaren 14koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Carolina Ortega Ortega andrearen izendapena aldatzen den eta Finantza, Aurrekontu eta Erosketen zuzendariorde izatera igarotzen den, Zuzendaritza Nagusian.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren apirilaren 24ko 230/2006 Ebazpenaren bidez, Carolina Ortega Ortega andrea izendatu zuten Erakunde Zentraleko Aurrekontuak Kudeatzeko zuzendariordearen lanpostua betetzeko (2006ko maiatzaren 25eko EHAA, 98. zk.).

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2020ko abenduaren 18ko Akordioaren bidez, Erakunde Zentralaren egitura aldatzea onartu zen, Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritzaren berrantolaketari dagokionez, eta Aurrekontuak Kudeatzeko Zuzendaritzaren izena aldatu zen; aurrerantzean, Finantza, Aurrekontu eta Erosketen Zuzendariordetza deituko da.

Aurrekoa ikusita, aldatu egin behar da Carolina Ortega Ortega andrearen izendapenaren izena, beraz, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legea onartzen duen ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetzan Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak emandako esku-menaren babesean, Zuzendaritza Nagusi honek, honako hau,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Carolina Ortega Ortega andrearen izendapenaren izena aldatzea; izan ere, Finantza, Aurrekontu eta Erosketen zuzendariordea izatera igaro da, Zuzendaritza Nagusian.

Bigarrena.– Ebazpen hau indarrean jarriko da dataren biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 14a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.